

ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs7. Zientzian eta Teknologian lizentziatuak

Zientziatako, Matematikako eta Teknologiko goi tituludunen tasa, 20-29 adineko 1000 biztanleko.


Batzordeak berak dioenez, Europako Batasunak goi mailako irakaskuntzako tituludunetan defizita dauka, Japonia, AEB... bezalako herrien aldean. Batasunean, batez beste, 25 eta 64 adin tarteko gizonezkoen %23 eta emakumeen %20 inguru goi mailako tituludunak dira. Japoniaren kasuan, kopurua %36raino igotzen da gizonezkoen kasuan, eta %32raino emakumeenean. AEBrekin alderatuz gero, amerikar horien %37 unibertsitateko tituludunak dira.

Zientzia eta teknologia ikasketetan lizentziatu direnei dagokienez, EBko herrialdeen multzoan kopurua areagotzeko interes berezia dago. Kasu honetan, arestian aipatutako bi herrialdeen aldeko erkaketa EBren onerako da (%25,7 EB, Japoniaren %21,9ren eta AEBren %17,2ren aldean).

Era berean, Europako Batasunak zientzia eta teknologia karreretako lizentziatuen artean sexuen arteko desoreka konpentsatzea helburutzat hartu du. Halako ikasketak egitera jo eta amaitzen dituzten emakumeen kopurua gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da.

2000 urtean, gizonezkoen proportzioa emakumeenaren bikoitza zen, besteak beste, Alemanian (12,6 gizonezko tituludun 3,6 emakumeren aldean), Erresuma Batuan (21,4 gizonezko, 10,6 emakume), Italian (7,1 gizonezko, 6,4 emakume), eta Espainian (13,3 gizonezko, 6,4 emakume). 2010erako helburua, tasa hori nabarmen gehitzeaz gain, sexuen arteko diferentzia erdira murriztea da.

EAEri dagokionez, azkeneko urteotako bilakaerari aditzen badiogu, mila biztanleko dagoen zientzia eta teknologia ikasketetan lizentziatu eta diplomatuen tasa asko gehitu dela ikusten dugu, 1992-93 ikasturteko %4,5etik 2000-2001eko %12,1era igaroz. Emakume eta gizonezkoen arteko desorekari dagokionez, gizonezkoen tasa emakumeenaren bikoitza da (%16,7 gizonezko, eta %8,2 emakumezko, 2000-01 ikasturtean).



ISEI-IVEI


IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs7.1 taula

Zientzian eta
Teknologian lizentziatuen
tasa, 20-29 adin tarteko
1000 biztanleko. EAE
1992-2001 urteak.

Zientzian eta Teknologian lizentziatuen tasa, 20-29 adin tarteko 1000 biztanleko			
Urteak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
92-93	3,3	3,9	2,8
93-94	3,6	4,3	2,8
94-95	4,5	6	2,9
95-96	5,1	6,4	3,7
96-97	5,7	7	4,4
97-98	6,3	7,5	5
98-99	6,2	7,4	4,9
99-00	6,9	8,2	5,5
00-01	7,1	8,4	5,7


Zientzian eta Teknologian lizentziatuen tasa 1000 biztanleko



Rs7.1 grafikoa

Zientzian eta
Teknologian lizentziatuen
tasa, 20-29 adin tarteko
1000 biztanleko. EAE
1992-2001 urteak.

Iturria EUSTAT



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs7.2 taula


Zientzian eta Teknologian lizentziatu eta diplomatuen tasa. 20-29 adin tarteko 1000 biztanleko. EAE. 1992-2001 urteak.

Zientzian eta Teknologian lizentziatuak eta diplomatuen tasa, 20-29 adin tarteko 1000 biztanleko.			
Urteak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
92-93	4,5	5,9	3
93-94	4,6	6,1	3,1
94-95	6,5	9,3	3,6
95-96	7,5	10,3	4,5
96-97	8,8	11,9	5,5
97-98	9,3	12,4	6,1
98-99	10,1	13,2	6,8
99-00	12,1	16,2	7,8
00-01	12,1	15,7	8,2


Rs7.2 grafikoa

Zientzian eta Teknologian lizentziatu eta diplomatuen tasa. 20-29 adin tarteko 1000 biztanleko. EAE. 1992-2001 urteak.

Zientzian eta Teknologian lizentziatuak eta diplomatuen tasa, 1000 biztanleko.



Iturria: Eustat.



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Rs7.3 taula

Zientziatiko,
Matematikako eta
Teknologiako graduatuen
tasa, 20-29 adin tarteko
1000 biztanleko. EB. 2000
urtea (*).

Zientziatiko eta Teknologiako graduatuen tasa, 20-29 adin tarteko 1000 biztanleko. EB. 2000			
2000 urtea	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Luxenburgo	1,8		
Italia	5,7	7,1	4,2
Holanda	5,8	9,5	2,1
Portugal	6,3	7,8	4,9
Austria	7,2	11,6	2,9
Alemania	8,2	12,6	3,6
EB (15 herrialde)	9,3	13	5,5
Belgika	9,7	14,4	4,9
Espainia	9,9	13,3	6,4
Suedia	11,6	15,5	7,6
Danimarka	11,7	16,5	6,8
EAE	12,1	16,2	7,8
Finlandia	16	22,7	8,9
E. Batua	16,2	21,4	10,8
Frantzia	19,6	27,1	12,1
Irlanda	23,2	28,6	17,8

Rs7.3 grafikoa

Zientziatiko,
Matematikako eta
Teknologiako graduatuen
tasa, 20-29 adin tarteko
1000 biztanleko. EB. 2000
urtea (*).

(*) Iturria: Eustat diplomatuen eta lizentziatuen batuketa jasotzen duten Euskadiko datuetarako, eta Eurostat gainerakoetarako.

